

Boro, boro, borobila, ia

Idazlea: Pello Añorga. **Ilustratzailea:** Jokin Mitxelena.

Argitaletxea: Pamiela.

2016-02-28 / Imanol Mercero

Barruko leihotik/ sartu da ekia/ bihotza jaikita/ zabal begia». Hala dio *Ekia* aletxoak, izenburuari erreferentzia egiten dion lau poemetako batek.

Zazpi ataletan banatuta dago, baina gaiak ez dira atalak bezainbeste. Arestian aipatu lau poematxoen gaiek, *barruko leihoa* irudikatzen ari diren horienak, atalek baino hobeto banatzen dute liburua: natura, landareak, animaliak eta hitza.

Salbuespenak salbu, aurkituko dugun poema moldea ere irudikatzen dute: lau lerrokoa, errimari eta erritmoari lehentasunez atxikia, ideia konplexuak (ez beti) irudi sinpleen bidez azaltzen. Eraitza, halakoa da, jostalaria ideiekin bezainbat hizkuntzarekin, mendizalea irudietan, laburrean sinplea (sinpleegia, batzuetan?), herabea sentimenduetan eta pentsamoldeetan. Ahozkotik gertu, boz gora irakurtzeko proposak dirudite.

Ezin aipatu gabe utzi ilustrazioek duten indarra, sarri ondoan dituzten poemak baino indar poetiko handiagoa erakusten dutela iruditu zait niri. Badaitort, liburua zabalduta eta han azaltzen zaigun paisaiari so eman dudana denbora neurtzeko erlojurik ez da sortu.